

Kultura

'AZPIMARRAK'

Kasualitate metaliterarioak

Idazlea: Nerea Balda Sanjuan. Argitaletxea: Erein.

Nagore
Fernandez

2023ko ekainak 11

0

Azpimarrak du izena Nerea Baldak Erein etxean argitaratu berri duen nobela laburrak. Trama entretenigarria du obrak: izenburuak aurreratzan digun bezala, azpimarrak dira nagusi, bai azpimarratutako hitzek esaten dutenagatik, bai lotzen dutenagatik. Izan ere, azpimarrak betetako liburu bat da, ustez, loturarik ez daukaten bi pertsonaia nagusiak, Selva eta Andreu, harremantzen dituen motiboa eta kasualitate nagusia. Hirugarren pertsonako narratzaile orojakileak noiz Selvarengan, noiz Andreurengan jartzten du fokua, eta tarteka eta saltoka euren orainak eta iraganak osatzen dizkigu.

Espazioek ere berebiziko garrantzia dute liburuan, batez ere Punta s' Arenellak, hots, Gironako kostaldean dagoen itsasargiak eta inguruek. Espazio utilitario horrek asko du sinbolikotik ere bi pertsonaia nagusientzat, euren gaztaroko leku kutunena ez ezik, babeslekua ere badelako; bertara biltzen dira sosegua aurkitzeko esperantzarekin. Idazleak, hortaz, euskal literaturan ohikoagoa den euskal giro horri muzin egin, eta Bartzelonako ingurumarietara darama irakurlera.

Aipatzen diren lekuek ez ezik, literaturak eta hizkuntzak ere euskal zentraltasunetik urruti garamatzen iruditeria hori osatzen dute. Asko dira pertsonaiei *ihes egiten* dieten katalanezko hitzak, naturaltasun osoz euskararekin batera sartzen direnak. Dakigunez, komunitate eleaniztunen eta diglosikoen egoera ahalik eta modurik errealistenean erakusterako orduan, polifoniaren auzia konstante bat izan da literaturan. Euskal sistemara etorriz, batzuek, halakoetan, euskara hutsean idaztearen aldeko apustua egin izan dute; besteek, ordea, errealitatea dagoen-dagoenean erakustearan aldekoa, Saizarbitoriak *Ehun metro*-n egin zuen bezala, edo, tarteka eta euskaran askoz ere zentratuago, Nerea Baldak *Azpimarrak*-en egin duen bezala.

Erronka bat iruditzen zait polifonia hori literaturaren bitartez kontatzea: ez, berez, aniztasun linguistikoki hori beste barik islatzea, ezpada naturaltasun ez egitea eta, gainera, testuinguru hori atze-oihal edo atrezzo bat baino gehiago dela erakustea. Izan ere, bietara egin daiteke, alegia, aniztasun linguistikoki hori diskurtsoan txertatu, edo euskara hutsean idatzi, betiere paisaia osatzen duen apaingarri soil bat (bakarrik) ez bada. Eta esango nuke Baldak irakurlea komunitate katalanean bertaratzea eta iruditeria horrekin blaitzea lortzen duela, hizkuntzaren bitartez nagusiki, baina baita literaturaren laguntzaz ere. Horra hor liburuaren indargunea.

Eskurik esku pasatzen diren liburuak, bidaiariak, pertsonak lotzen dituztenak. Asko dira literaturaren balio errekurtsibo horretaz baliatu diren idazleak, dela gurean, Iban Zalduren *Bibliografia* ipuinak kontatzen digunez, dela nazioartean ere, Stefan Zweigen *Xake nobela*-k iradokitzen duenez, esaterako. Alde horretatik, irakurleak ez du aurkituko proposamen originalik edo apurtzailerik Baldaren lanean; bai, ordea, kontakizun entretenitu eta irakurterraz bat, literaturatik eta literaturaren bitartez ondutakoa.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaeren berri ematen segitu.

Izan BERRIAlaguna

Gaiak

Nerea Balda Erein Literatura euskaraz Literatura Arteak eta kultura

Albiste gehiago



«Adinez ez dut deus jakin nahi»

UXUE REY GORRAIZ

Ekainaren 5etik, Noaingo La Faktoria zentroan egonaldia artistikoa egiten dabil Alicia Olaegi; bihar bukatuko du. 'Artista eramangarria' obra garatzen ari da, «zoria eta denbora gidari». Hilaren 24an estreinatuko du.



Oskar Gazteluk liburu batean bildu ditu baserriko bizimoduaren galeratik jaiotako poemak

NAROA TORRALBA RODRIGUEZ

Ernestina Champourcin saria irabazi zuen *Bizitza (h)uz(s)ten* lanak, eta Erein argitaletxeak plazaratu du orain.



Liverpooleko tronpetek urratutako bidetik

PEIO BARRENETXEA



Rodrigo Cuevas, Rebeca Lane eta Olaia Inziarte ariko dira Atlantikaldian

OLATZ ENZUNZA MALLONA

Hamargarren aldia beteko du jaialdiak. Irailaren 14tik 17ra egingo dute, Errenterian (Gipuzkoa).

Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoa.

 Pribatasun politika eta [Lege informazioa](#) irakurri ditut eta onartzen ditut

idatzi zure posta elektronikoa

Harpidetu

Iruzkinek kargatzen...



JARRAITU

 Facebook
 Twitter
 Instagram
 Youtube
 RSS

SAILAK

Gizartea
Politika
Mundua
Ekonomia
Iritzia
Berria TBKirola
Kultura
Bizigiro
Ibilkari
Infografiak
Argazkiak

LEGEA

Lege Informazioa
Pribatasun politika
Cookieak
Zozketak
Lan eskaintzak
 Lizentzia
Publizitatea
Bidera zerbitzuak
MIDAS Media